

Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordearen Araudia

ATARIKOA

Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordearen honako Araudi hau osatzeko, hain zuzen, UPV/EHUko irakaskuntza-ikastegi bakoitzari Kalitate Batzordearen funtzionamendurako berariazko Araudia eratzten laguntzen dion Irakaskuntza Ikastegietako Kalitate Batzordearen Esparru Araudiak ezarritako gidalerroei jarraitu zaie.

Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko bateratze-prozesuarekin lotutako hainbat programatan aurreikusitakoa betetzen du. Zehazki, araudi honek gradu berrietako ikasketa-planetan aurreikusitakoari erreparatzen dio; eta horien arabera, irakaskuntza-ikastegiek Kalitatearen Barnebermerako Sistema (SGIC) bat eduki beharko dute. Aldi berean, AUDIT programak (tituluen kalitatea bermatzeko programa) eskatzen du SGIC bat duten ikastegiek euren diseinua praktikan jarri beharko dutela, eta horretarako, Ikastegiko Kalitate Batzordeak aipatutako sistema horren funtzionamendua ebaluatu beharko du. Bestalde, UPV/EHUko irakasleen Irakaskuntza Jarduera Ebaluatzeko Programak (Docentiaz) ere, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2009ko abenduaren 22an onartutakoak, Ikastegietako Kalitate Batzordeen garapenerako araudi bat izatea eta praktikan jarzea aurreikusten du.

Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordea Ikastegiko Batzarrak izendatutako batzordea da, eta Zuzendaritza Taldearekin batera, SGICen plangintza- eta jarraipen-zereginetan parte hartzen du. Gainera, kalitate-sistema honen politiken, helburuen, planen, programaren, erantzukizunen eta lorpenen barne-komunikaziorako bideetako bat da. Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordeak, bestalde, laguntza eta aholkularitza eskainiko die Ikastegiko zuzendaritza-taldeari eta Ikastegiko Batzarrari, tituluen curriculum-garapenaren plangintza eta jarraipena egitean; betiere, gaitasunetan oinarritutako irakaskuntza-ikaskuntzarako eredian oinarrituta. Bertan, hainbat metodologia aktiboren bitartez eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien laguntzarekin, auto-gidatutako ikaskuntza (banakakoa zein taldekakoa) eta etengabeko ebaluazioa sustatzen dira, hizkuntza anitzeko irakaskuntza-testuinguruan. Era berean, Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordea arduratuko da txostenak igortzeaz, gerora irakasleak ebaluatu ahal izateko.

Ikastegiko Batzarra da Donostiako Eskola Politeknikoko gobernu arrunteko eta ordezkartzako kide anitzeko organoa; beraz, berari dagokio Donostiako Eskola Politeknikoko kalitate-politika eta helburuak onartzeko erantzukizuna, eta baita Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordearen eratzea, osaera eta funtzioak onartzekoa ere. Bide beretik, Ikastegiko Batzarra arduratuko da hainbat titulutako hobekuntza-ekintzak onartzeaz, Graduako Tituluen Kalitate Bermerako Sistemaren esparruan. Horretarako, besteak beste, sistema ebaluatzeko txostenetan oinarrituko da; hain zuzen, Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordeak aurkezten dituen horietan.

1. art. Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordearen Araudiaren helburua

1.- Honako Araudi honen helburua, hain zuzen, Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitatearen Barne-bermerako Sistemaz (SGIC) arduratzen den organoaren egitura, osaera eta funtzioak finkatzea da.

2.- Organo horri Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzorde izena emango zaio.

3.- Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordearen funtzionamenduari buruzko honako Araudi hau osatzeko, hain zuzen, Irakaskuntza Ikastegietako Kalitate Batzordearen Esparru Araudiak ezarritako gidalerroei jarraitu zaie.

2. art. Erregimen juridikoa

1.- Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordea honako Araudi honen arabera gidatuko da; hain zuzen ere, Ikastegiko Batzarrak eratu du, Irakaskuntza Ikastegietako Kalitate Batzordearen Esparru Araudiak ezarritako gidalerroak eta aplikatzeko moduko gainerako araudiak aintzat hartuta.

2.- Gobernu Kontseiluari dagokio Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordearen Araudia behin betiko onartzea; betiere, Ikastegiko Batzarrak halaxe eskatuta, eta dagokion legezkontasuntxostena egin ondoren. Idazkaritza Nagusiak, bestalde, halaxe eskuordetu diotelako, aldeko txostenak dituzten Araudiak onartu beharko ditu; baldin eta Ikastegiko Batzarreko kideen %15ek edo Gobernu Kontseiluko kideren batek Gobernu Kontseilura eramateko espresuki eskatzen ez bade. Ondoren, onartutakoen berri eman beharko zaio Gobernu Kontseiluari.

3. art. Funtzioak

1.- Araudi honetan, Ikastegiko Batzarrak honako funtzio hauek esleitu dizkio Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordeari:

- a. Kalitatearen Barne-bermerako Sistemaren (SGIC) jarraipena, abian jartzea, ezartzea eta diseinua sustatzea.
- b. Prozesuen jarraipena egitea, horiekin lotutako adierazleen bitartez.
- c. Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordean erabakitako proposamenak Donostiako Eskola Politeknikoko zuzendaritza-taldeari jakinaraztea.

- d. Donostiako Eskola Politeknikoaren urteko helburuak bildu, eta hala badagokio, formulazioa koordinatzea; eta horiek egikaritzen ote diren jarraipena egitea.
- e. Gogobetetze-inkestetako emaitzak jasotzea eta emaitza horietatik eratorritako hobekuntza-proposamenetarako irizpideak proposatzea.
- f. Txostenak egitea, gerora irakasleak ebaluatzeko.
- g. SGICen azterketan eta berrikusketan oinarrituta, Urteko Txostena egitea. Eta aldi berean, tituluetan finkatutako helburuak erdiesteko premia kotzat jotzen diren hobekuntza-ekintzak proposatzea.
- h. Tituluaren egiaztatzea eskuratzeko eta aldian-aldian berritzeko laguntza eskaintzea.
- i. Donostiako Eskola Politeknikoaren kalitate-politika eta -helburuak komunikatzeko bide izatea, eta hala, unibertsitate-komunitatean horiek hedatu eta betetzen direla bermatzea.
- j. Tituluaren curriculum-garapeneren plangintzan eta hedapenean laguntzea.
- k. Donostiako Eskola Politeknikoko irakasleak irakaskuntza-tresna eta -metodologietan trebatzea sustatzea, gradu berrien curriculum-garapena hobetzeko.
- l. Donostiako Eskola Politeknikoko kideen eta bere interes-taldeen trebakuntza sustatzea, kalitatearekin eta ebaluazioarekin lotutako gaietan.
- m. Donostiako Eskola Politeknikoko Zuzendaritzari SGICekin lotutako alderdiei buruzko aholkularitza eskaintzea.
- n. Ikastegiko Batzarrari bere eskumeneko alorreko hainbat ebazpen onartzeko proposatzea.

2.- Donostiako Eskola Politeknikoko zuzendaritza-taldeak hala eskatuta, Ikastegiko Batzarrak Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordeari eskuordetu diezazkioke kalitatearen kudeaketarekin lotuta berez dituen funtzioak; esate baterako, Ikastegietako Esparru Araudiko 9.2.) artikuluan xedatutakoa.

4. art. Osaera

1.- Honako hauek osatuko dute Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordea:

- a. Donostiako Eskola Politeknikoko zuzendari jaun/andreak, idazkariak eta zuzendaritza-taldeko 3 kidek (Donostiako Eskola Politeknikoko zuzendari jaun/andreak izendatutakoak).
- b. Oinarrizko gaietako modulu-gaiak eskaintzen dituzten sailtako edo sailtako atale-tako 4 ordezkari. Ordezkarik horiek, hain zuzen, Donostiako Eskola Politeknikoko zuzendaritza-taldeak aukeratuko ditu, Donostiako Eskola Politeknikoan egoitza duten Saillek edo Sailtako Atalek halaxe proposatuta.
- c. Tituluko koordinatzaileek.
- d. Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonaleko ordezkari batek (bereziki, kalitate-gaietan erantzukizunen bat daukan pertsona).
- e. Ikasleen 2 ordezkari, Donostiako Eskola Politeknikoko Ikasle Kontseiluak halaxe proposatuta: bata Eraikuntza arlokoa; bestea, berriz, Industria arlokoa.

2.- Era berean, ahalegindu behar da bi sexuetako ordezkariak orekatu izatea Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordean.

3.- Lehendakari-ianak, berriz, Donostiako Eskola Politeknikoko zuzendari jaun/andreak egingo ditu, edo bestela, hark eskuordetutako pertsonak. Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordeko idazkaria, berriz, Donostiako Eskola Politeknikoko idazkaria izango da.

4.- Ikastegiko Batzarrak izendatuko ditu Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordeko kideak; betiere, Donostiako Eskola Politeknikoko zuzendaritza-taldeak halaxe proposatuta. Izendapena lau urterako izango da. Ikasleen ordezkariak dagokionean, berriz, bi urteko izendapenak izango dira; nolahi ere, epea luzatu ahal izango da.

5.- Ikastegiko Kalitate Batzordearen irizpideei eta funtzionamenduari eutsiko zaiela ziurtatzeko, honelaxe berrituko da Batzordea:

- Ikastegiko Zuzendaritza aldatzen den orotan berrituko dira Zuzendaritzako kideak ere.
- Tituluko Koordinatzaileek erabateko eskubidea izango dute Kalitate Batzordean.
- Oinarrizko gaiak edo tituluko gai komunak eskaintzen dituzten sailtako edo sailtako atalako 4 ordezkariak eta AZPko ordezkaria Zuzendaritzako kideak berritu eta bi urtera berrituko dira.
- Ikasleen ordezkariak bi urtean behin berrituko dira.

5. art. Laguntza-batzordeak

1.- Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordeak, ondo dagokionean, bere laguntza-batzordeak eratuko ditu. Horiek aholkularitza-izaera izango dute, eta Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordearen menpe egongo dira beti. Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordeak erabakiko du, beraz, laguntza-batzorde bakoitzaren osaera, lehendakaria, idazkaria, jardun-eremua eta funtzioak zein izango diren, eta baita bere funtzionamendu-erregimenaren berezitasunak zein izango diren ere.

2.- Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordeak titulu-batzordeak eratuko ditu: titulu bakoitzerako bana. Batzorde horiek, hain justu, Donostiako Eskola Politeknikoan eskaintzen diren graduen curriculum-garapenaz arduratuko dira. Titulu-batzorde horietan tituluko koordinatzaileak hartuko du parte. Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordeak erabakiko du, beraz, batzordeen osaera, lehendakaria, idazkaria, jardun-eremua eta funtzioak zein izango diren, eta baita horien funtzionamendu-erregimenaren berezitasunak zein izango diren ere.

3.- Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordeak, era berean, beste batzorde bat eratu ahal izango du, irakasleen Irakaskuntza Jarduna Ebaluatzeko Programaren (Docentiaz) informazio-iturri izango dena. Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordeak erabakiko du, beraz, batzorde horren osaera, lehendakaria, idazkaria, jardun-eremua eta funtzioak zein izango diren, eta baita bere funtzionamendu-erregimenaren berezitasunak zein izango diren ere.

6. art. Funtzionamendu-erregimena

1.- Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordea arautzeko, kontuan hartuko da une horretan Donostiako Eskola Politeknikoko Ikastegiko Araudian dauden kide anitzeko organoen funtzionamendu-erregimena; betiere, baldin eta Ikastegiko Araudi horretan agertzen diren kide anitzeko organoen funtzionamendu-arauek ez badiete aurka egiten Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Araudi honetako arauari (hala izanez gero, Araudi hau errespetatuko da). Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordea eratu ondoren; gertatzen diren bajak betetzeko, Ikastegiko Batzarrek izendatutako kideak erabiliko dira, Donostiako Eskola Politeknikoko zuzendaritza-taldeak halaxe proposatuta.

2.- Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordeko erabakiak hartzeko, bileran parte hartzen dutenen gehiengo oniritzia beharko da. Lehendakariak, berriz, kalitateko botoa izango du. Batzordearen erabakiek ez dute izaera betearazlea izango. Donostiako Eskola Politeknikoko zuzendaritza-taldeari jakinaraziko zaizkio, hark beharrezko neurriak har ditzan.

3.- Idazkariak akta idatziko du, eta Donostiako Eskola Politeknikoko Kalitate Batzordeko kide guztiei helaraziko die. Ondoren, publiko egingo da, eta beraz, Donostiako Eskola Politeknikoko Unibertsitate Komunitate guztiak izango du eskura.